



2011

# HERNANIREN JATORRIA: ORREAGAKO GUDUETATIK NAFARROA GARAIAREN 1512KO KONKISTARAINO

**Beñi Agirre (Hernani Errotzen Elkarteak)  
(HERNANI 2011)**

## Artxibategiko dokumentu bat

Luis Murugarren apaiza eta historialariak *Hernani, su historia e instituciones* liburua idatzi eta Caja de Ahorrosaren laguntzaz argitaratu zuen 1970ean, Burgoseko prozesua bere gordinean zegoen urte berrean. Lehenengo atalean honela dio: *“Cuando aparece, pues, Hernani en la Historia, Guipúzcoa estaba unida políticamente a Navarra y eclesiásticamente esta región era disputada por Pamplona y Bayona”*. Franco bizi-bizirik zegoen hartan ez zitzairen ausardiarik falta izan Murugarreni eta Caja de Ahorros Municipal de San Sebastiani Hernani politikoki Nafarroari lotua izan zela idatziz jarri eta publikatzeko. Hala ere, ez dirudi garai hartan inork erreparatu zionik Hernaniren nafartasunaren aipamenari.

Gaur, ordea, historia kontuetan zertxobait jantziago eta gauzak idatziz jartzeko librexeago, garbi esan dezakegu Gipuzkoa ez zegoela Nafarroari lotuta. Bi arazoi nagusi daude hori esateko: bata, garai hartan ez zela existitzen Gipuzkoa; eta bestea, Hernani *“no estaba unida a Navarra”*; hau da, Hernani Nafarroako lurraldea, tenentzia bat, zela. Hernani Nafarroa zen, Zangoza eta Lizarra bezalaxe.

Aipatutako liburuan, ezagutzen ez nuen dokumentu batetik ateratako aipamen harrigarri bat ere bada: *La situación próxima de la villa a la frontera con Gascuña y Navarra le va a obligar constantemente a enviar sus hombres más fuertes a la lucha como fueron cuando Carlomano yntento entrar...*<sup>(1)</sup>. Jatorrizko dokumentua Hernaniko artxiboan aurkitu nuen, artxibozainaren laguntzari esker. Honela dio: *“en el discursso de 900 años de esta parte en ospedar y / agasagar la ynfanteria y caualleria que a estado en ella en las dichas / ocassiones y en las demas que baxan para lo (sic) exercitos de Flandes / y armadas [Reales de] Vuestra Magestad como en su resturacion no sola/mente acudien[do a l]as conquistas sino a la defenssa de que otras / nazionez no entrassen a ganar la parte que los christianos pos[e]/yan como fueron quando Carlomano yntento entrar en ella”*.

(1) HUA/AMH//E-4-II-2/3. Documentos referentes al Patronato de la Iglesia Parroquial de Hernani y a las gestiones realizadas por la villa para ser favorecida con la merced del mismo... En los memoriales elevados para apoyar esas pretensiones, se hace relación de los servicios prestados a Su Magestad por la villa en diferentes ocasiones... 1606 1800.

Dokumentua XVII. mendearen azken erdialdekoa da; hortaz, 900 urte atzera eginez gero, Orreagako guduaz ari dela pentsatzeko bide ematen du: 778. eko abuztuaren 15eko bataila hartaz, alegia. Idatziairen testuingurua kontuan hartuta, Espainiako erregeari mesede eske idazten ari zaio, eta, anakronismo ugari izanda ere, dokumentu horrek erakusten du hernaniarrek 778ko Orreagako gudura joan zirelako ustea bazutela XVII. mendean. Dokumentu hau eta Pasai Donibaneko harrizko plakaren testigantza kontuan hartuta, pentsa daiteke Urumea bailarako lur hauetatik joandakoak baskoiekin batera borrokatu zirela Orreagako batailan. Baskoiekin batera? jakina! Hernanikoak ere baskoia baitziren.

## Hernani dokumentu idatzi faltsutuetan

Murugarrenek esateko Iruñeko eta Baionako elizak norgehiagoka ari zirela, Arsius Raca Baionako artzapezpikuaren idatziaz baliatuko zen, noski (980koa omen den dokumentua eta XII. mendean faltsifikatua<sup>(2)</sup>). Garai horretakoak dira, era berean, Baionako San Leon zaindariaren elezaharra eta Gaskoniako kondeak normandiarrek hartutako lurak berreskuratzea. Gaskoniako kondea Antso Gilen zen, Gartzia Sánchez I.a Nafarroako erregearen zerbitzari eta haren alaba Urrakarekin ezkonduakoa. Hortaz, bai Baiona bai Iruñea Nafar errege-erreginaren gobernupekoak izanda, ez da hain harrigarria hamarrenak edo diezmoak zein elizbarrutik eskuratuko zituen erabakitze liskarra.

Baionako dokumentu horren aurretik ere bada Hernani azaltzen den beste bat: *Los Votos de San Millan* izenarekin Antonio Ubietok aipatzen duena.

Fernán González Gaztelako kondeak egiten duen dohaintza batekoa da. XII. mendearen erdialdean Donemiliagako (San Millan de la Cogolla) monjeek

(2) Arsius Raca, Baionako Artzapezpikua: 980. urtekoa da eta elizbarrutiaren hegoaldeko mugak zerrendatzen ditu, Ibañetatik hurbil dagoen Carlomagnoaren gurutzetik hasita, Pirineetatik rago, goi Nafarroako hainbat haran, Bidasoa ibaiaren arroa eta gaur egungo Gipuzkoaren zati bat hartzen dituela: *Omnis vallis que Cirsia dicitur usque ad Karoli cruce[m], vallis que dicitur Bigur; vallis que Arberua dicitur; vallis que Ursoxia dicitur; Bastan item vallis usque in medium portum de Belath; vallis que dicitur Lerin, terra que dicitur Ermania [Hernani], et Sanctum Sebastianum de Pusicu [Ipuzcoa] usque ad Sanctam Mariam de Arosth, et usque ad Sanctam Trianam [Lizarrate euskaraz eta San Adrián gaztelaniaz]. Dubarat-ek Missel de Bayonne de 1543 agiriaren sarrean, Paue, 1901.*

monasterioa indartze aldera faltsifikatutako dokumentuan, 934koa ei zena, hau diote: *De rivo de Galharraga usque in flumen de Deva, id est tota Vizcaya, et de ipsa Deva, usque ad Sanctum Sebastianum de Hernani id es, tota Ipuzcoa a finibus Alava, usque ad ora maris, quidquid infra est de una quaque alboze singulos boves.*

Nafarroako tenentzia zen Ipuzcoako lurak deskribatzen ditu dokumentu horrek: *et de ipsa Deva, usque ad Sanctum Sebastianum de Hernani.* Deba eta Oria ibaien (*San Sebastian de Hernaniraino*) arteko lur horiek, 1025ean, Olazabalgo San Salvador monasterioren lurak San Joan de la Peñari García Azenariz eta Ipuzcoako doña Gailak egindako dohaintzaren benetako dokumentuan azaltzen dira. Hor ere bi monasterio indartsuen liskarra antzeman daiteke, biak ala biak monasterio nafarrak garai horretan, bai San Millan de la Cogollakoa bai San Joan de la Peñakoa.

Gaztelako kondearen papera zein den argitzeko daukagu, ordea. Fernán González Burgoseko konde Gonzalo Fernándezen semea zen, Gaztelako lehenengo kondetzat hartzen da eta Arabako konde bezala ere sinatzen zuen 931tik aurrera, Nafarroako erregea zen Gartzia Sánchez I.aren arreba-rekin ezkondu ondoren. Geroago, Fernán González hori Nafarroako errege-erreginaren alaba Urraka Gartzesekin ezkonduko zen. Hortaz, errege-erreginaren babesean eta emazte nafarren aldetik zetorkion Ipuzcoako ustezko titulua. Horren froga garbia da Gaztelako konde horren seme eta oinordeko Garcia Fernandezek ez zuela Arabako konde titulurik erabiliko. Nafarroan, karguak ez ziren oinordetzakoak eta Gaztela ez zen erresuma izango 1037.era arte. Iruñeko Erresuma 824an sortu zuten baskoiek eta berehala zabaldu zuten agintea haien lurraldean. Hernani modu fidagarrian aipatzen duen lehenengo dokumentua Antso III.a Nagusia Iruñeko erregeak Leire monasterioari egindako dohaintza batekoa da. Ezagutzen dugun kopia geroago idatzitakoa bada ere, dohaintza 1014ko apirilaren 17an eginda bezala agertzen da. Dohaintza hori 1101ean berretsiko du Aragoi eta Iruñeko Pedro I.a erregeak: ..., *damus et offerimus ipsi Deo, et sanctis praenominatis, et Monasterio Leiorensi, ..., et monachis in eo habitantibus in Dei servitio praesentibus ac futuris, in finibus Ernani ad litus maris Monasterium unum, quod dicitur Sancti Sebastiani cum parrochia sua, et illam villam, quam antiqui dicebant, Yzurum...*<sup>(1)</sup>. Hernani itsasoraino iristen dela dioen esaldiak (in finibus Ernani ad litus maris) ingurune geografiko bati egiten dio erreferentzia.

(1) "..., damus et offerimus ipsi Deo, et sanctis praenominatis, et Monasterio Leiorensi, et vobis spirituali patri et magistro nostro Dompno Sanctio Episcopo, et monachis in eo habitantibus in Dei servitio praesentibus ac futuris, in finibus Ernani ad litus maris Monasterium unum, quod dicitur Sancti Sebastiani cum parrochia sua, et illam villam, quam antiqui dicebant, Yzurum cum Ecclesiis suis scilicet Beatae Mariae, et Sancti Martyris Vincentii, & (Iruñeko artzapezpikuen katalogoa, Prudencio Sandoval abispaok emana; 1614. urtea) (<http://hedatuz.euskomedia.org/1944/1/26393422.pdf>)

Ez dakigu jende-populazioak non izango zuen justu bizitokia, nonbait bizilagunen kontzentrazioak baldin bazen garai hartan. Hala ere, bi arrazoi badira itsas bazterrean, egungo Donostian, jendearen bizitoki nagusia ez izateko: bata, itsasertzeko inguru hori urmael, padura, eta zingirak izango zirela, populatu ezinak eta eltxoz betetakoak gainera; eta bestea, itsasotik zetozen erasoan aurrean, bertakoek ez zutela defentsa errazik itsasertzean bertan. Arrazoi horiez guztiez gain, Hernani oraingo toki inguruan izan zitekeela esateko, aldeko arrazoi bat behintzat badago: Urumea ibaian barrena Hernaniraino, oraingo Portu auzoraino, iristen zirela itsasontziak; horrek, babes handia ematen zien biztanleei, baita itsasotik bizi ziren arrantzaleei ere.

### Hernani Donostiako Foruan

Hernani bere barruan hartzen duen lurraldeari buruzko hurrengo aipamen garrantzizkoa, berriz, Donostiako Foruan agertzen da<sup>(2)</sup>. 1180 inguruan, Antso VI.a Jakituna errege baskoiek Donostian erresumaren itsas portu nagusia eraiki zuen: *Dono ad populatores de Sancto Sebastiano, de Undarabia usque ad Oriam, et de Arrenga usque ad Sanctum Martinum d' Aran totum saltum quod ego habeo intra terminum, et totum quod ibi est sit de realengo.*

Alegia, Donostiako herritarrei ematen diet Undarabiatik (Hondarribitik) Oriaraino (ibaiak egiten du Ipuzcoa eta Hernaniko tenentzien muga) eta Arrengatik (Errenga mendia, Oiartzun eta Lesakako mugan dagoena izan daiteke) Aranorainoko lur eremuen barruan jabegoan dudana eta bertan erregearena den guztia<sup>(3)</sup>.

Hiri Gutun horri esker Iruñeko erresumaren itsas portu garrantzitsuena egin zen Donostia. Jakatik, Iruñetik eta Gasteiztik zetozen artile, ardo eta garia hemendik bidaliko ziren Europara eta horrek aldaketa handia eragingo zuen nafar kostaldean. Baleen arrantza eta Europarekin merkataritza harremanak garapen izugarria izango dute. Gaskoniarrak, Akitaniako baskoi erromanizatuak, bertan finkatuko dira eta Oria - Bidasoako nafar tenentziaren hiri nagusia izango da oraingo Donostia.

Antso VI.a Jakitunak (1150-1194) aldatu zion izena erreinuari, Iruñeko erresuma zena Nafarroako erresuma izango da aurrerantzean. Horren harira edo izendatu zuen euskara nafar guztion hizkuntza: lingua navarrorum. Antso VI.a baskoien errege nafarrek sartuko gara euskaldunok nolabaiteko Estatu-egitura modernoan. Europako beste erresumetan egiten ari ziren bezala, Nafarroan ere, hiriak birpopulatzeko eta ekonomikoki bultzatzeko hiri gutunak ematen hasi ziren. Antso VI.ak eman

(2) Gipuzkoako historia <http://www.ingeba.org/liburua/donostia/43fuero/43fuero.htm>


(3) <http://www.nabarralde.com/dok/agiriak/A103.pdf>

zituen gehienak: Durangori, Tuterari, Gasteizi, Son-  
sierrari, Trebiñuri eta beste askori, baita Donostiari  
ere. Antso VI.aren seme Antso VII.a Azkarrak Mota  
gatzeluaren eraikuntza jarraitu eta harresitu zuen  
Donostia.

### Hernaniren inbasioa eta konkista

Antso VII.a Azkarrarekin amaitu ziren lurralde  
honi buruzko nafar aipamenak. 1200. urtearen au-  
rretik, aztarna guztiek Nafar Estatu independen-  
tearen ezaugarriak dituzte, ondorengoek, berriz,  
Gaztelarren sinadura izango dute. Historialari ge-  
hienek, horietan ofizialista diren guztiek, bat-bate-  
ko aldaketa horren arrazoiak azaldu gabe kontatzen  
digute gure herriaren historia, gu euskaldun eta  
nafarrak izatetik gaztelar-espainolak izatera modu  
naturalean eta inongo bortxarik gabe pasatu izan  
bagina bezala. Zer gertatu zen, bada, 1200. urtearen  
inguruan? Zer ezkutatu nahi digute?

Alfontso VIII.a gaztelarraren osteez Gasteiz setia-  
tu eta suntsitu egin zuten 1200eko udaberrian.  
Gasteiz garai hartan Nafarroaren eta Gaztelaren  
arteko mugako nafar-hiri harresitu garrantzitsue-  
netakoa zen. Gaztelarrek hiria suntsitu eta handik au-



**Nafarroaren konkista, 1060-1620 (NABARLUR).** 1200. urtean  
Gaztelak Nafarroako erresumako mendebalde konkistatu zuen.  
Antso VII.a Azkarra bertan ez zela aprobetxatuz, Gaztelako errege  
Alfontso VIII.ak eraso egin zion, nahiz eta erresuma gordeko ziola zin  
egina zion. Gasteizek ia urtebete eutsi zion, eta erregeak eskatuta  
baino ez zen entregatu. Alfontso VIII.a Gipuzkoan eta Durangalde-  
an ere inposatu zen. Trebiñuk bakarrik eutsi zion 4 urtez; Gaztelako  
erregeak lurralde hori lortu zuenean Arabatik banandu eta konderri  
feudala sortu zuen (Soraura, Mikel: Historia de Navarra, el Estado  
vasco. Pamiela, 2008).

rrera, lehenago Bureba eta Errioxako nafar lurretan  
egin zuten bezalaxe, armada indartsua sartu zuten  
Araba, Durangaldea, Aitzorrotz, Ipuzcoa eta Herna-  
ni-Donostia tenentzietan barrena, Baionaraino.

Erdi Aroko konkisten testuinguruan, hemen gerta-  
tutako bortxa, hilketa, lapurreta eta arpilatze ekin-  
tza ugari eta herritarren sufrimendua ezabatu nahi  
izan dituzte. Inbasio eta konkista ekintza lotsagarri  
horri Gipuzkoa eta Gaztelaren arteko borondatezko  
bat-egitea deitu izan diote kronista batzuek. Gezur-  
ra diote, ordea. Garai hartan ez zegoen Gipuzkoarik,  
beraz, ez zegoen gipuzkoarron izenean hitzarmena  
sina zezakeen ez agintaririk ez erakunderik. Aginte  
bakarra nafar errege-erreginarena eta hauen ize-  
nean ziharduten tenenteena zen. Gainera, ez dago  
bat-egite edo pacto izan zelako frogarik; ordea, kon-  
kista izan zelakoa bai, garaiko dokumentu idatzian  
gainera.


Dokumentu hori edonoren esku dago Gipuzkoako  
Foru Aldundiak argitaratutako bilduma honetan:  
*Colección de Documentos Medievales de las villas  
Guipuzcoanas*. Dokumentuaren izena, berriz, hau:  
*Traslado del fuero de San Sebastián sacado a peti-  
ción del concejo de la villa de Guetaria*. Idoia Arrie-  
ta historialariak dokumentu bitxi honen jarraipena  
eta ikerketa egin du. Prentsa artikulua batean aipa-  
tzen duenez <sup>(1)</sup>, aurkitutakoa sinestezina iruditu  
zaio, izan ere, dokumentua irakurri eta “Hurrengo  
pausua Madrilgo Errege Akademian jasota dagoen  
agiriarekin konparatzea izan da”. Eta hemen aurki-  
tu zuen tranpa. “Azken honen benetako izenburua  
hau da: 1202-1332 Guetaria SS. *Parte del Fuero de  
S.S. Y en el preambulo se dá por sentada la conquista  
de S.S.* eta dokumentuaren ezkerreko aldean ohar  
bat: “*ojo conquista de S.S.*” Sinestezina dirudi”. Gauza  
asko argitzeko baliagarria izango zaigu dokumentu  
hori.

Alfontso VIII.ak Donostia konkistatu egin zuen; be-  
raz, Hernaniko tenentzi nafarra konkistatu zuen.  
Historialari espainiar eta espainiarzaleek betidanik  
jakin izan dute bortizki egindako eraso bidez ken-  
du zizkietela lurak Erresuma nafarrari, bai 1054an,  
bai 1200ean, bai eta 1512an ere. Historialari ofizia-  
lek, berriz, nahiago izan dute hori ezkutuan gorde  
eta hitzarmena eta borondatezko bateratzea bezala-  
ko asmakizunak kontatu. Historialari ofizialek kon-  
tatzen digute inongo gupidarik gabe Nafar errege  
batek, 1180an, Donostiari emandako Hiri Gutuna  
1203an Gaztelako erregeak zin egin zuela eta kitto!

inongo azalpenik gabe, gezurra esanez, edo historia-  
lari batentzat larriagoa dena: gertatutakoa isilduz.  
Askok esaten dute, berriz, Hernani XIII. mendearen  
erdialdean (1252-1256) fundatu edo sortu zela.

(1)<http://www.nabarralde.com/es/egunekoa/6441-historialari-ekzutatu-digutena-donostiaren-konkistaren-dokumentua>





Papeles, memoriales y apuntamientos / tocantes a la pretensión que tiene / la villa del Patronato de su Iglesia / Parrochial de San Juan Baptista.

Copia del memorial que se remitió a Ju[an] (1) / Gorostidi sobre el patronato de Hern[ani] (2) / y servicios de la villa.

(1) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(2) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

**Documentos referentes al Patronato de la Iglesia Parroquial de Hernani y a las gestiones realizadas por la villa para ser favorecida con la merced del mismo, que dieron por resultado le fuese otorgado por el término de doce años. En los memoriales elevados para apoyar esas pretensiones, se hace relación de los servicios prestados a S.M. por la villa en diferentes ocasiones..., 1600-1800 (HUA/AMH/E-4-II-2/3)**

Horretarako bi argudio erabiltzen dituzte: bata, Tolosan egindako 1489ko Batzarrean esan zutela Hernaniko ordezkariak Herriko Hiri-Gutuna sute batean erre zela; eta bestea, ziurtatzerik ez badago ere, Gaztelako erregearen lurretan eta Nafarroa Garaiarekin muga, Hernani ere Alfonso X.ak sortua izatea logikoa dela, garai berekoak baitira muga-lerro horretan sortutako Hernani bezalako beste hainbat herri.

Lehenengo argudioan errazkeriaz baztertzen da Hernaniko sute horretan nafarrak ginen garaiko dokumenturik jasota egotea artxiboetan.

Ala gaztelarren dokumentuak bakarrik erre ziren? Nahiko probatua dago eta, Hernani bat bazela hemen errege gaztelar-espainolen konkistaren aurretik. Bigarren argudioan, berriz, leialago litzateke esatea Hondarribitik Logroñoraino zeuden hainbat hiri estrategiko, Gaztelak gotortu eta prestatu zituela 1512ko konkista burutzeko. Haien artean, Hernani.

Artikulu honen hasieran aipatutako dokumentuan, honela kontatzen da 1512ko konkistaren pasarte: *“y en particular el año de / 1512 quando entro el exercito de Francia en los reinos de Navarra y dicha / provincia de Equipuzcoa (sic) acudio con toda su gente a su defenssa por / cuya caussa fue saquea-*

*da y quemada en dicha ocasión.”* Esaldi motz eta mamitsua da, baina egileak bere burua salatzen du bertan. Gaur egun, mundu guztiak daki, 1512an, Nafarroa Garaia konkistatzera sartu zirenak ez zirela frantsesak izan, gaztelar eta behe-aragoiarrak baizik, espainiarrak finean. Garbi jarri zuen idatziz Gipuzkoatik borrokatzera joan zen jendea espainiarren alde aritu zela eta, esaldia horretan, argi jartzen du zergatik erre zituzten ondoren, Hernani eta inguruko beste herriak: nafar erresumaren kontra aritu zirelako *“por cuya causa fue saqueada y quemada”*.

Historialari ofizial askok jarraitzen dute gezur beraren gainean gure herriari buruzko kontaketa historikoa egiten: Hernani frantsesek erre zutela? Gipuzkoatik, Hernanitik, Iruñera joan ziren guztiak Espainiaren alde egin zutela? Bai, zera! Ez al zegoen nafar gizon-emakume leialen artean, hernaniarrik? Frantsesak al ziren denak?

Galdera asko dago oraindik argitzeko, baina seguru asko ez dugu denbora luzean galdera horien erantzunik jakingo, agian ez dugu inoiz jakingo, zeren eta espainiarrek lurralde bat konkistatzen zutenean, gustuko ez zituzten dokumentuak erretze zaleak baitziren oso.

En la villa de Hernani que es en la prouincia de Eguipuzco (sic) dice que / ella y sus vecinos tienen hechos muchos y muy particulares seruiçios / a Vuestra Magestad y a los señores reyes sus predeçessores en defenssa de la yglesia / y de su Real Corona siendo plaza de armas de la dicha prouincia en todas / las ocassiones que se an ofrecido y frontera de Francia y aun de Nauarra / mientras se yncorporo aquella de en esta de Vuestra Magestad y en particular el año de / 1512 quando entro el exercito de Francia en los reinos de Nauarra y dicha / probincia de Eguipuzcoa (sic) acudio con toda su gente a su defenssa por / cuya caussa fue saqueada y quemada en dicha ocasión y en el de / 1559 quando entraron la gente de la probincia y Nauarra en / Francia sirvio con todos sus vecinos asta que se tomaron los puestos / y se hizo la fación. Y el de 1570 queriendo el enemigo tomar a / Fuenterrauia fue el prim[ero que se] <sup>(1)</sup> puso al passo en la oposicion, con 300 / hombres con que se le[s sit] <sup>(2)</sup> iar y el de 1597, que yntento lo / mismo acudio con la misma compañía con otra tanta gente. / Y el de 1618 sirbio con una escuadra para Fuenterrauia y el año / de 1616 en las entregas reales sirvio a Vuestra Magestad con una compañía / de 200 hombres y el de 1625 sirvio por mandado de Vuestra Magestad con una compañía de 150 ynfantes en el passo de Beobia y el de 1633 / acudio al quartel de Yrun con una compañía y el año de 1636 quando / las armas de Vuestra Magestad entraron en Francia fue la compañía de la dicha villa / de de (sic) 200 ynfantes la primera que esguazo el rio Vidasso y ocupo / los puestos y el de 1637 para hacer una correria sirbio con un[a] <sup>(3)</sup> / compañía de 100 hombres en el mismo año sirbio con ella para ret[...]<sup>(4)</sup> / las armas de Vuestra Magestad que assistian en la provincia de Labort y el [de] <sup>(5)</sup> / 1638 quando el enemigo hizo ynbassion y entro en la prouincia fu[e] <sup>(6)</sup> / la primera que con mas de 200 hombres acudio a su defenssa / y el día 7 de julio huiendo el enemigo ocupado el puesto de As/tigarraga con yntentos de ganar a la dicha villa fue la primera / toda la gente de ella la que esguazo el rio Hurumea y traualso / la escaramussa peleando asta acerle retirar mostrando el balor / que siempre sus hijos y en las demas que se ofrecieren durante / la campaña del socorro de Fuenterrauia en reconocer y tocar / armas peleando los días que se ofrecieren con los quarteles del enemigo / y ocupo los puestos de la colina que el enemigo tenia por horden del / Marques de Mortara por estar agregada a su gente y el día 7 de sep[tiembre] <sup>(7)</sup> // fueron los primeros a quien toco salir en mangas a pelear como lo / hicieron hechandole de sus quarteles y zertificaciones (sic) y el año de / 1639 sirbio a Vuestra Mages-

(1) Tinta mantxatxoa, ez da irakurtzen.

(2) Tinta mantxatxoa, ez da irakurtzen.

(3) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(4) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(5) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(6) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(7) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

tad con una compañía y assistio en el quartel / de Yrun y el año de 1643 quando el enemigo yntento quemar / los Pasajes y nabios que hauia en el puerto acudio con 200 hombres / al socorro y que siempre estan con las armas en la mano preveidos / los pocos vecinos que se an quedado por hauer perdido mucha gente / en las dichas ocassiones y reduçidose a pobreza la villa y todos sus / vecinos por hauer echo los dichos serbicios a su costa de 132 años / a esta parte sin los ynnumerables que tiene echos desde la perdi[da] <sup>(8)</sup> / de Espana en el discursso de 900 años de esta parte en ospedar y / agasagar la ynfanteria y caualleria que a estado en ella en las dichas / ocassiones y en las demas que baxan para lo (sic) exercitos de Flandes / y armadas [Reales de] <sup>(9)</sup> Vuestra Magestad como en su resturacion no sola/mente acudien[do a l] <sup>(10)</sup> as conquistas sino a la defenssa de que otras / nazioni no entrassen a ganar la parte que los christianos pos[e] <sup>(11)</sup> / yan como fueron quando Carlomano yntento entrar en ella / y el de 1321 quando fue derrotado Don Ponce de Morentain en / la tierra de Beotibas veniendo a ganar la dicha probincia con / exercito de 60.000 hombres ynbiado por el rey Carlos de / Francia y que mas de todos los dichos serbicios fue hijo y vecino / de la dicha villa Juanes de Urbieta, Cauallero de la Real Horden de / Santiago quien prendio al rey Francisco de Francia como lo mani/fiesta el prebilexio que le mando desfachar el Señor Emperador / Carlos 5 <sup>(12)</sup> y refieren todos los auctores, Fray Prudençio de / Sandobal en su bida folio 729 y por ser el patronazgo de / la yglesia parroquial de la dicha villa de Vuestra Magestad de que hace / merced a perssonas particulares y de pressente le esta echa a Don / Joseph de Ynssausti por su bida y otra quen son dos bidas y por / que la dicha yglessia se alla desmantelada de manera que esta con / yndecencia en ella el culto dibino y que los clerigos no / gozan cada año mas de 30 ducados de renta mobida de es/tas raciones y de la piedad de Vuestra Magestad en considerazion / de los dichos serbicios a V. Mag. suplica le aga merced para después / de las dichas dos bidas del dicho patronazgo perfectuo que de ma... <sup>(13)</sup> / de los dichos serbicios por la dicha merced ser[vira] <sup>(14)</sup> para ... <sup>(15)</sup> // ocassiones pressentes con lo que jussto fuere con calidad / de que se le a de conzeder facultad por poder vender algunas / tierras que no le sson de util y lo demas tomar a zensso sobre / el consejo y vecinos particulares de la dicha villa o repartirlo o / ynponer sissas para la paga de lo con que Vuestra Magestad sirbiere y el / gasto de las bulas y lo demas asta que se lo entregue los despachos / que recibira merced.

(8) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(9) Tinta mantxatxoa, ez da irakurtzen.

(10) Tinta mantxatxoa, ez da irakurtzen.

(11) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(12) Carlos Va.

(13) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(14) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.

(15) Dokumentua hautsita, ez da irakurtzen.







Veion Espineros quien solo salia en mangas apelar como  
hicieron se acordole de sus quartales y certificacione q. y el año  
1639 sirbio a Vnaq. con una compania y asisto en el quartel  
De un yelano de 1643 quando el enemigo yntento quoraz  
Los pasajes y nabios que Hauia en el puerto a sudio con 200  
al solorno y que siempres estan con las armas en la mano preuadiendo  
los paos vecinos que sean quedado por sauer perdido muchos paos  
En las otras ocasiones y reduciendose a poblar la Villa y todos los  
Vezing por sauer esso los dchos serbicios an costa de 132 años  
Esta parte sin los y numerables que tiene otros paos de la parte  
De España en el discurso de 900 años desta parte En ospe daron  
a pagar la ynfanteria de auallena que a estado en ella en las  
Ocasiones y en la de mas que baxan para lo exercitos de España  
armadas de Vnaq. como en su restauracion nos da  
mente a sudio en las conquistas sino ala defensa de que otras  
naciones no entraren a ganar la parte de los cristianos por  
ya como fueron quando Carlomagno yntento entrar en ella  
del 1321 quando fue derrotado Don Bruce de mantain  
La tierra de heotiba Veniendo a ganar la dcha Provincia en  
exercito de 600 hombres sabidos por el rey años de  
francia y que mas detados los dchos serbicios fue el Sr. Alcaide  
de la dcha Villa Juanes de Vbieta Cavallero de la Orden de  
Santiago quien prendio al Rey fran de francia como lo man  
festa el prebitado que le mando de facer el Sr. Emperador  
Carlos 5. y se fieren todos los auiciones frax prudente de  
quando en su vida 4. 129 y por ser el patronazgo de  
la yglesia parroquial de la dcha Villa de Vnaq. de que sea  
una persona particular y de prouente se esta cosa adon  
de seps de yndauri por su vida y otra que son dos vidas y por  
que la dcha yglesia sea de mantada de m que esta con  
yndencia en ella el culto tibino y que los Perijos no  
de han cada año mas de 30 ducados de renta mobida de  
estas Praciones y de la piedad de Vnaq. en consideracion  
de los dchos serbicios a Vnaq. suplica se aga un para despu  
de las dhas dos vidas de lo dho patronazgo por ferno que de ma  
de los dchos serbicios por la dcha dcha para



Asi como presentes con lo que fuere con falta  
de que se lea de Conceder facultad por poder vender algunas  
tierras que no se son de Mill y lodemas tomar a genio sobre  
el consejo y vecinos particulares de la dha Villa de partir lo p  
poner sillas para la paga de lo que y mas se biere y el  
gasto de las bulas y lodemas asta que se lo entregue los despachos  
que recibiran mm

*[Faint vertical handwriting on the left side of the page]*

*[Small handwritten marks or symbols on the right side of the page]*